

Euskal Herria Bilduren Kode Etikoa

Sarrera

—

EH Bildun uste osoa dugu etikak eta politikak binomio estu eta iraunkor bat osatu behar dutela. Horregatik, Euskal Herria Bilduko kideok Kode Etiko honetan araututakoarekin konprometituak gaude, gure federazioaren eta gure komunitatearen kultura etikoa definitzen eta zehazten duen tresna dela aintzat hartuta, hori guztia, Euskal Herria Bildu alderdien Federazioaren Estatutuetan ezarritakoarekin bat etorritz.

Kodearen helburuak honako hauek dira:

- » Kudeaketa efiziente eta gardena sustatzea, gizartean EH Bildurekiko konfiantza eta ziurtasuna sortuko duena, gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeari eta gobernu onari buruzko legeriarekin bat etorritz.
- » Barne-kudeaketa efiziente eta garden bat sustatzea, militante eta herritarren artean konfiantza eta ziurtasuna sortuko duena, EH Bilduren barneko eta kanpoko funtzionamenduaren inguruan.
- » Jokabide bidegabe eta delituzkoen prebentzio eta detekziorako beharrezkoa den arreta ezartzea, informazio, prestakuntza eta kontrolaren alorretan behar diren mekanismoen bitartez, nola federazioaren jokabideei hala federazioa osatzen duten pertsonen jokabideei dagokienez.
- » Federazioa eta haren kideak babestea, edozein irregulartasun saihestuko duen sistema bat ezarriz.
- » Federazioaren irudia eta ospea babestea, eta sor litezkeen gatazka edo dilema etikoak konpontzeko bide egoikiak ezartzea.
- » Ezarritako bideak erabiliz, Kode Etiko honen irregulartasun eta ez-betetzeak salatzen dituzten pertsonen nor-tasuna babestea, horrelakorik eskatzen badute.

EH Bilduko komunitatea

Euskal Herria Bildu Federazioa Alternatiba Eraikitzen, Eusko Alkartasuna eta Sortu alderdi politikoez (guztiak Alderdi Politikoen Erregistroan inskribatuak) eta ezein alderdi politikorekin zuzeneko loturarik ez duten pertsonez osatuta dago, eta guztiek onartzen dituzte Euskal Herria Bildu Federazioaren estatutuak, jarduteko esparru komun bat sortzeko eta berau hornitzeko (alderdien kasuan, haien burujabetza politikoa eta antolamenduzkoa galarazi gabe).

EH Bildu euskal indar politiko nazionala da, eta haren lehentasunezko jardun-eremuak Hego Euskal Herriko lau lurralde historikoak hartzen ditu: Araba, Bizkaia, Gipuzkoa eta Nafarroa Garaia. Halaber, eta Ipar Euskal Herriari dagokionez, EH Bilduk lehentasunezko lankidetza-harreman estrategikoak izango ditu EH Bairekin, bere baitan zazpi euskal lurralde historikoak bilduko dituen Euskal Estatua eraikitzeko ikuspegiarekin betiere.

EH Bilduk honela definitzen du bere burua: burujabetzaren aldeko euskal ezkerreko indarra, justizia sozialean oinarritutako Euskal Herri independentea lortzea xede duena; eta demokrazia eta burujabetza defendatzen duen aliantza estrategikoa, helburu horiekin bat datozen alderdi edo sektore politiko eta pertsona guztien parte-hartzera irekita dagoena.

Horretarako, besteak beste, herritarren borondate politikoa osatzen lagundu nahi du demokratikoki EH Bilduk, eta ordezkartza-erakunde politikoetan parte hartzeko aukera sustatu nahi du hauteskundeetan hautagaitzak aurkeztuz eta haiei babesa emanez.

Gure nazioa osatzen duten hiru eremu administratiboetako bakoitzak bere etorkizun politikoa askatasunez erabakitzeko eskubide integrala duela defendatzen du EH Bilduk, baita elkarren arteko konfederazioa osatzeko eskubidea dutela ere, herritarrek hala erabakitzen badute. Botere politikoaren birbanaketan oinarritutako Estatu bat defendatzen dugu, subsidiarotasun-printzipioa lehenesten duen Estatu bat, herritarrengana hurbiltzeko eta demokrazian sakontzeko helburuarekin.

Nazioartearen eremuan, EH Bilduk akordio politikoak eta/edo hauteskunde-akordioak adostu ahal izango ditu Estatu Espainoleko, Estatu Frantseseko edo Europar Batasuneko beste herrialde batzuetako beste alderdi politiko edo federazio batzuekin, elkarrekin lan politikoa egiteko edo Hego Euskal Herriko lau lurraldeena baino maila handiagoko eremuko hauteskunde-deialdietan elkarrekin parte hartzeko.

Federazioaren proiektu politikoaren parte sentitzen diren pertsona guztiek osatuko dute Euskal Herria Bilduko komunitatea.

Euskal Herria Bilduren oinarri ideologikoa eta helburu politikoak honako hauek dira:

» **Autodeterminazioa eta Emantzipazioa**, Estatu burujabe bat osatuz: Euskal Herria.

- » **Bake Prozesua**, gatazkaren konponbide demokratikoak sendotzeko eta bultzatzeko.
- » **Demokrazia zuzena** eta parte-hartzailea, herriaren boterea sustatzeko.
- » **Berdintasunean, justizian** eta ekologian **oinarritutako eredu sozio-ekonomikoa**.
- » Gure herrialdea **Euskalduntzea**, herritar eleaniztunak izan gaitezen.
- » **Feminismoa**, patriarkatuaren aurka borrokatzeko tresna gisa.
- » **Hezkuntza Eredu propioa**, publikoa, parekidea, parte-hartzailea, euskalduna eta kalitatezkoa.
- » **Gazteria** politikaren **aktore nagusi gisa**.
- » **Nazioarteko elkartasuna**.
- » **Arrazakeriaren** eta **Xenofobiaren aurkako borroka**.
- » **LGTBI pertsonen eskubideak** eta askotariko gizarte aske baten eraikuntza.
- » **Kirola eta kultura** eraikuntza nazionalaren ardatz egituratzaile gisa.
- » **Laikotasuna** eremu publiko guztietan.
- » **Memoria integrala** eta demokratikoa.

Horregatik, EH Bildu Euskal Herriko gizartearen zerbitzuan jartzen da. Parte-hartzean oinarritutako demokrazia defendatzen du, herritarrekiko etengabeko harreman ireki eta zintzoa ahalbidetuz. Bere gain hartzen du gizarte zibilari benetako parte-hartze efektibo baterako bide berriak eskaintzea, mugimendu eta eragile sozialei erabakiak hartzean eta diseinuan parte hartzeko aukera emanez, betiere, haien autonomiaren errespetutik. EH Bilduk bere gain hartzen du guztiontzako Euskal Herri askea eraikitzea, bere oinarri ideologikoei jarraikiz eta jarraian zerrendatuko ditugun printzipio eta balio etikoetan oinarrituz.

EH Bildurentzat ezinbestekoa da emakumeek eta beste pertsona batzuek beren sexu- eta genero-aniztasunaren arabera jasaten duten diskriminazioa desagerraraztea. Haien eskubideak oso-osorik defendatuko ditu, feminismoarekin bat eginez, heteropatriarkatua gainditzeko eta indarkeria guztien, esplotazioaren eta diskriminazioaren aurka borrokatzeko printzipio ideologikoa eta ezinbesteko tresna den heinean. Ikuspegi hori zeharkako ildo bat izango da EH Bilduren helburu politiko eta programatiko guztietan eta ekintza politiko osoan.

Elkarriketa, negoziazioa eta desberdinen arteko akordioa EH Bilduren DNAn dago, fokua, betiere, euskal gizartearen interes orokorraren defentsan jarrita.

Printzipioak eta balioak

EH Bilduk kezka ikusten du ustelkeria eta klientelismoa praktika orokor bihurtu direla gure herriaren bizitza politikoan, hamarkadatan opakutasun-aura bat eta kudeaketa txarra sortu duena administrazio publikoetan, horren ondorioz, herritarren artean, gai politikoekin zerikusia duen guztiaren aurkako jarrera nagusitu delarik.

Konfiantza praxi on baten eskutik irabazten dela jakitun, EH Bilduk bizitza politikoa onbideratu nahi du, herritarrek erabakiak hartzeko erdigunean jarritz, eta, horretarako, bere zeregin politikoa garatzen du honako printzipio eta balio hauei jarraikiz:

- » **Justizia eta Berdintasuna:** EH Bilduk inor ere modu arbitrarioan diskriminatu gabe dihardu, eta, une oro, berdintasunaren defentsa bilatuz.
- » **Inpartzialtasuna:** Norberaren eta Federazioaren ideietara atxikitzeko politikak. Federazioa osatzen duten pertsonei, beren irizpideari jarraikiz objektibotasunez eraikitzeak aukera galarazi gabe.
- » **Gardentasuna:** EH Bilduko politikek herritarrei aukera ematen diete beren kargudun publikoen, federazioaren edo federazioak diharduen erakunde legegile, betearazle edo administratiboaren eskuetan dauden informazioak eskuratzeko, oztopo eta diskriminaziorik gabe eta lege-mugetatik haratago, herritarren eskubide eta askatasunen defentsarako interesgarriak direnean, kargudun publikoaren jarduerari buruzko informazioa barne.
- » **Egiazkotasuna:** EH Bilduk egia eta konfiantzaren kulturaren sinesten du, politika egiteko modua den heinean.
- » **Gizartearen zerbitzuan:** EH Bilduren politikak komunitatearen zerbitzuan daude, gizartearen interesak interes partikularren aurretik jarritz, horrela, herritarren arazo eta premiak konpontzearen.
- » **Profesionaltasuna:** EH Bilduk arduraz, gaitasunez, efikaziaz eta azkartasunez garatzen du bere jarduerak, bakoitzaren prestakuntza eta gaitasunak kontuan hartuz.
- » **Eredugarritasuna:** Gure-gurea den jarrera bat da, eta besteei ere eskatzen diegun jarrera, ereduaren portaera hori lortzeko bidean. EH Bildu eredugarria da eta eredugarria izan nahi du, datuak emanez, eta iritziak —eta, batez ere, justifikazioak— gordez.
- » **Austeritatea:** EH Bilduk eta EH Bildu osatzen duten kideek zorrotasunez jokatzeko dute, jardutean eta baliabide publikoak kudeatzerakoan.
- » **Efizientzia:** EH Bilduren politikak herritarren eta guztion onuraren aldeko politikak dira, erakundearen funtzionamendu egokia berreskuratzeko eta federazioaren politika- eta gobernu-programetako helburu eta xedeak betetzeko asmoarekin sortuak.

- » **Elkarrizketa, Negoziazioa eta Akordioa:** EH Bilduk eta EH Bildu osatzen duten pertsonak beren gain hartzen dute elkarrizketa, negoziatzioa eta akordioa edozein prozesuren lan-metodoa eta oinarria direla.
- » **Errespetua:** EH Bilduk enpatiaz eta begirunez dihardu besteren duintasunarekiko, eskubide eta betebeharren subjektua den heinean gainerako pertsonen, gainerako biziduneri, giza baliabideen erabilera jasangarriaren eta ondare materiala eta immateriala osatzen duten elementuei dagokienez. Horregatik guztiagatik, EH Bilduko komunitatea osatzen dutenen arteko harremanak, baita gainerako herritarrekiko harremanak ere, elkarrenganako gehieneko errespetuan oinarritzen dira. EH Bilduk gaitzetsi eta salatu egiten ditu sistema patriarkal baten berezko jarrera erasotzaile, agresibo eta biolento guztiak. Konfrontazio politikoaren esparruan, tratatu edukatua eta errespetuzko hizkera erabiltzen du, aipamen pribatu edo iraingarriak alde batera utzita.
- » **Zintzotasuna:** EH Bilduk zintzotasunez, zuzentasunez eta integritatez dihardu: hitza eta jokabidea unean-unean zuzentzat jotzen duenera egokituz. EH Bilduko komunitateak zintzotasunez jokatzen du bere kide guztiekin, beste edonorekin, gizartearekin, ingurumenarekin eta bere inguruneako jardunaren ingurunearekin, nola erantzukizun politikoetan, hala baliabide publikoen administrazioan.

Konpromiso publikoak

Printzipio eta balio horien guztien eginkizuna jardunbide egokiak gidatzea eta estimulatzea da, baita bizitza demokratikoa indartzea eta konpromiso eta bokazio politikoari prestigioa ematea ere. Hala, horiekin batera, EH Bilduk honako konpromiso publiko hauek hartzen ditu:

1. EH Bilduk gure herrialdearen burujabetzaren, eskubide sozialen eta demokraziaren alde herritar guztiei aurkeztutako hauteskunde-programa gauzatzeko **lan egitea**.
2. **Integritatea** jarduera politikoan. EH Bilduk ahalegin pertsonal eta kolektiboan oinarritutako lan-etika sustatuko du, bidegabea den edozein jardun saihesteko, egitearen edo ez egitearen ondoriozkoa delarik ere. Kargu batean aritzea ez da pribilegio bat, konpromiso bat baizik, aginte eta kudeaketa efiziente, zuzen, garden eta eraginkor bati loturik betiere, baliabide publikoei eta Federazioaren baliabideei dagokienez.
3. Enpresa eta fortuna handien interes komertzial, ekonomiko eta/edo finantzarioak edo norberaren pertsonalak herritarren interesen **aurretik ez jartzea**. EH Bilduko Komunitatearen interesekin zerikusirik ez duten interes pertsonal, ekonomiko edo politikoak ordezkatzeko asmoz alderdi politikoen Federazioa edo jardun politikoa tresna gisa erabiltzea galaraziko du EH Bilduk.
4. **Funts propioekin finantzatzea**. Orain arte bezala, EH Bilduk bere esku dagoen guztia egingo du banku pribatuarekin zorpetu beharrik ez izateko, haien mendean ez egotearen.
5. **Soldata bat etorriko dira** Federazioak ordaindutako kargudun publikoentzat eta barneko kargudunentzat ezarritako soldata-taulekin. Hortaz, legez jaso beharreko ordainsariak soldata-tauletan ezarritakoa gainditzen duenean, taula horietan ezarritako ordainsarien arabera doitu eta egokituko da, dagokionaren borondatez.
6. **Erantzunkidetasuna**, EH Bilduko proiektu komunaren aurka doazen ekintza bidegabeen eta, beraz, desleialen aurrean erantzukizuna hartuz. Baliabide publikoak ezin dira xede pribatuatarako erabili. Horrenbestez, ezin kargudunek ezin izango du pribilegiorik eduki, ez beretzat, ez bere ingurukoentzat, ezta Federazioarentzat ere. Ezin dezakegu inoiz ahaztu EH Bildu gizartearen zerbitzuan dagoen proiektu kolektibo baten parte dela: hortaz, haren jarduera bidegabeak ongi definitu eta ezagutu behar dira. EH Bilduk behar diren mekanismoak bultzatuko ditu bidegabea den edozein jardun prebenitu, ikertu eta zigortzeko.
7. **Bere buruari ez esleitzea** EH Bilduri ez dagozkion **merezimenduak**. Bereziki, EH Bilduk ez du adieraziko bereak direnik kolektibo sozial eta sindikaletatik edo herritarren kolektiboetatik proposatzen diren ideiak.
8. **Gardentasuna indartzea**. EH Bilduk hobekuntza praktikoak gauzatu ditu, besteak beste, aurrekontu publikoak egiteko prozesuan aldaketak sartuz eta herritarren parte-hartze zuzena eta sakoneko ezagutza bultzatuz, demokratizaziorako eta zuzeneko kontrolerako mekanismoa den heinean.

9. **Opari abantailatsurik ez onartzea.** EH Bilduk ez du inolako opari, dohaintza, otordu, gonbidapen, prebenda, mesede, ordainsari edo zerbitzurik onartuko baldin eta abantailazko baldintzetan eskaintzen bazaio, eta ohi-ko eta kortesiazko erabileretatik edo erabilera sozialetatik haratago badoa. EH Bilduko kideek aukera izango dute zirkunstantzien arabera egokiak diren arrazoizko otorduak eta opari sinbolikoak eskaini edo onartzeko, eta ez da opari, otordu edo entretenimendurik onartuko edo eskainiko, baldin eta jokabide horrek eragin desegoki bat ekar badezake berekin, edo bere jardunaren profesionaltasun eta inpartzialtasunean eragin badezake.
10. **Emakumeen** erabateko eta benetako **parte-hartze politikoa sustatzea**, sistema patriarkalaren egiturazko diskriminazioak gaindituz berdintasunean parte-hartzea galarazten duten heinean.
11. **Zaintza erdigunean jartzen duen kultura politikoa** bultzatzea. Lehenik eta behin, adimen emozionala sustatuz. Bestetik, autonomia eta gaitasun indibidual eta kolektiboen garapena baloratzen duen giroa erraztuz. Azkenik, gure diferentziak eta asimetriak modu aktiboan ulertuz eta aintzat hartuz. Hori guztia, bizitza politikoa, pertsonala eta soziala bateragarri egiteari eta politikan berdintasunean parte hartzeko baldintzei dagokienez, gure gizartean dauden zapalkuntza- eta diskriminazio-faktore guziak kontuan hartuz eta agerian jarritz. Hortaz, gure barneko eta kanpoko jardunbide politikoa ireki egin behar da, zaintzarekin bat etorritz.
12. **Zero tolerantzia** edozein egintza, esamolde edo komentario **matxista, lgtbifobiko, arrazista edo xenofoboren** aurrean, parte hartzen dugun edozein eremutan. EH Bilduk berehala kargugabetuko ditu, arrazakeriako, xenofobiako, lgtifobiako, genero-indarkeriako, sexu-arrazoiagatiko jazarpeneko, pederastiako edo haurrentzako tratu txarretako delituak direla-eta **ikertuak, auziperatuak edo kondenatuak** diren kargudun publikoak eta proiektzio publikoa eta politikoa duten barneko kargudunak. EH Bilduko komunitateko edozein kideren aurkako salaketa funtsatuak badaude, kasuan-kasuan ezarritako protokoloak aplikatuko dira, eta horietan oinarrituta jardungo da.
13. **Zero tolerantzia ustelkeriaren aurrean.** EH Bilduk berehala kargugabetuko ditu, ustelkeria-delituak, delitu ekonomikoak, langileen eskubideen aurkako delituak, delitu ekologikoak edo hirigintzakoak direla-eta **iker-tuak, auziperatuak edo kondenatuak** diren kargudun publikoak eta proiektzio publikoa eta politikoa duten barneko kargudunak. Azken batean EH Bilduk bere gain hartzen du oro har ustelkeriaren aurka borrokatzea, baita publikoaren kalterako interes pribatuen alde egiten duten interes-gatazken aurka eta EH Bildurentzat desegokiak diren jokabideen aurka ere.
14. **Edozein ikerketaren alde bozkatzea.** EH Bilduk bultzatu edo lagundu egingo du oro har ustelkeriagatik edo influentzia-trafikoagatik edo etikoki gaitzestekoa den edozein portaerarengatik izan litezkeen erantzukizunak argitu eta garbitzeko asmoarekin sortutako edozein ikerketatan, koalizioan oro har, edo koalizioa osatzen duten alderdietako edozeinetan, eragina izan dezaketen ikerketak barne. Oro har, edozein ikerketaren alde bozkatzea edo ez oztopatzea, baldin eta aferak benetako funtsik badu eta higadura politiko hutserako baliatu nahi ez bada.
15. **Giza duintasuna errespetatzea**, pertsonen arteko harremanetarako oinarria den heinean. EH Bilduk gaitze-tsi egingo ditu gure aurkari politikoen ospe pertsonalaren kalterako portaera guztiak edo haien bizitza pribatuan bidegabe sartzeko ekimen guztiak, baita deskalifikazio, irain edo eraso pertsonal guztiak ere.
16. EH Bilduren proiektuaren parte diren pertsonak Federazioaren **kultura etikoa ezagutu** beharko dute, eta harekin bat etorritz jardungo dute.

Jokabide kodea

Kode Etikoak jarduteko jarraibide espezifikoak zehazten ditu. Jarraian, Federazioaren printzipio eta balioak garatzen dira, Euskal Herria Bilduri lotutako pertsona guztiek Kode Etikoa bete dezatela sustatzeko jokabideen bitartez.

- a. Kargudun publiko edo barneko kargudunek, baita EH Bilduko komunitateko kide guztiek ere, arretaz, errespetuz, begirunez, enpatiaz eta duintasunez tratatu behar dituzte pertsona eta erakunde guztiak, edozein portaera jazarle, agresibo edo biolentotatik urrunduz.
- b. Kargudun publikoak edo barneko kargudunak arduraz, esfortzuz eta fede onez bete behar ditu esleitutako eginkizun guztiak, EH Bilduren irudiari kalterik egin gabe, eta, hori guztia, abantaila pertsonalik lortu gabe, bere betebeharrak betetzearen berezkoetatik haratago.
- c. Kargudun publikoak edo barneko kargudunak bere egiten du Federazioaren oinarri ideologikoa (ikus EH Bilduren Estatutuen 3. artikulua), eta Federazioaren organoek hartutako erabaki eta irizpideak errespetatu behar ditu. Desadostasunak EH Bilduren barne-egiturari helaraziko dizkio, betiere, ezarritako prozedurari jarraikiz. Hortaz, ez du eztabaida paralelorik sortuko hedabide edo sare sozialetan. Salbuespenez, desadostasunak jendaurrean azaltzeko aukera izango da, behin bidezko diren organoetan eztabaidatu ondoren eta parte-hartzaile guztien onarpenarekin.
- d. Barneko kargudunak EH Bilduren izenean eta haren interesekin bat etorritik jardun behar du, bere erantzukizunen eremuaren barruan, eta beraz, zuzendaritza-organoen erabakiak beteko ditu. Organo horien ebazpenak ontzat emango ditu, baita antolamendu- eta politika-eremuko ildo nagusiak ere.
- e. Kargudun publikoak kargudun publikoaren akta edo postua entregatu behar du EH Bilduko kide izateari uzten dionean. Kargu publikoak pertsonalak eta/edo partikularrak badira ere, kargudun publikoak onartzen du EH Bildu ordezkatzegatik okupatzen duela, hautagaiak hautatzeko barne-hautaketako prozedura izenekin edo izenik gabe izan.
- f. Kargudun publikoak EH Bilduren programa, ildo politikoa eta irudia ordezkatu behar du. Horretarako, ardura horretan aurretik egindako lanaz jabetuko da, ahal den informazio-truke eraginkorrena eginez proiektua eta lana garatzea eta herritarrengana hurbiltzea bere eginkizun nagusietako bat izanik, herritarrek horretarako hautatu dutela aintzat hartuta. Ildo horretan, EH Bilduren zuzendari hautatuen kontrol demokratikorako politikarekin bat etorritik, kontuak emango ditu aldian behin, bere zereginaren gainean sei hilean behin, eta bere bilera publiko, ekintza eta erabakien gainean (ikus Estatutuen 24. ter artikulua).
- g. Kargudun publikoak edo barneko kargudunak, baita EH Bilduko komunitateko kide guztiek ere, "zero tolerantziari" buruz ezarritako protokolo guztiak bete behar ditu, Kode Etiko honen III. atalaren hamabigarren eta hamairugarren puntuetan jasotakoari jarraikiz.

- h. Kargudun publikoak eta proiektzio politiko eta publikoa duen barneko kargudunak kargua utzi behar du berrehala, baldin eta Kode Etikoa III. ataleko hamabigarren eta hamahirugarren puntuetan aipatutako kasuetako batean inplikaturik badago.
- i. Kargudun publikoak borrokatu egin behar du jardura politikoaren eta Administrazio publikoaren ustelkeria desagerrarazteko, kargudun publikoaren eta alderdi politikoaren jarduerak zerikusia duelako interes eta ondasun publikoen kudeaketarekin, herritarren ordezkaritza-organismoaren parte hartzearekin, jardura normatiboarekin, interes-taldekiko harremanarekin, eta, azken batean, ustelkeria-arriskuak ageri diren egoerekin.
- j. Kargudun publikoak edo barneko kargudunak onartzen du esleitu zaizkion eginkizunak betetzeagatik jasotzen duen ordainsari ekonomikoa, baita ekarpen ekonomiko pertsonala —dohaintza edo ekarpen ekonomikoa— ere, betetzen duen karguari dagokion soldata-taularekin bat etorriko direla beti; azken ekarpen hori EH Bilduri egingo dio, guztiz bere borondatez.
- k. Kargudun publikoak edo proiektzio politiko eta publikoa duen barneko kargudunak, "ondare-adierazpen publikoa" erantsi behar dio horri, karguaz jabetu baino lehen, indarreko legeriak hori erreklamatzeko badu. Ildo beretik, kargua uzteko unean berriz ere hura aurkezteko konpromisoa hartzen du. Gardentasuna helburu izanik, EH Bilduri baimena ematen diote dagokion dokumentua eskuratu eta dokumentuaren erabilera publikoa egin dezan.
- l. Kargu publikoak edo proiektzio politikoa eta publikoa duen barneko kargudunak: bere agintaldia edo etapa amaitzean eta gutxienez bi urtean, ezin izango du zuzendaritzako posturik lortu edo irabazi asmoa duten sektore estrategikoetan, edo nazio edo estatuan garrantzi ekonomikoa duen eta bere eginkizunen interesei lotuta egon den enpresa pribatu batean; ezin izango du zuzendaritzako posturik lortu edo bete, berak izandako erantzukizun publikoekin lotutako enpresetan. Urtebetez, ezin izango du zuzendaritzako posturik lortu edo bete enpresa publikoetako administrazio-kontseiluetako kide gisa. Horrez gain, eta kargudun publiko gisa jardutearen ondorioz, ez du inolako onura fiskalik jaso behar, baldin eta horrek kolokan jar badezake gauzatu beharreko zeregin politiko eta instituzionalaren neutraltasuna. Kargudun publikoak uko egingen dio dena delako instituzioan bozkaturiko den edozein proposamen legegileri, baldin eta interes-gatazka argia baldin badago, interes partikular jakin bat baldin badauka, izan ekonomikoa edo enpresariala. Zalantzarik balu, dagokion erabaki-organora eramango du gaia, bertan ebatz dadin.
- m. Kargudun publikoak edo proiektzio politikoa eta publikoa duen barneko kargudunak ez du onartuko, haren balioagatik, ezaugarriengatik edo zirkunstantziengatik, harreman profesionalak aldatu edo horietan eragin dezakeen eta/edo interes-gatazkak sorraraz ditzakeen oparirik edo bestelako onurarik.
- n. Kargudun publikoak edo barneko kargudunak EH Bilduren bateraezintasunen erregelamendua bete behar du, baita Legeak kasuan-kasuan ezartzen dituen bateraezintasunak ere.
- o. Kargudun publikoak edo barneko kargudunak prestakuntza jaso behar du informazioaren tratamendu eta segurtasunaren alorrean, eta EH Bilduren protokoloa eta politikak bete behar ditu, barne-segurtasunari, gardentasunari, erantzukizun penal korporatiboari, informazioaren babesari eta datu pertsonalak babesteko betekizunei dagokienez.
- p. Kargudun publikoak edo barneko kargudunak behar bezala erabili behar ditu EH Bilduk eta/edo erakunde nagusiek bere eginkizunak garatzeko bere esku jartzen dituzten aparatu teknologikoak. Kode honen xedetarako, EH Bilduren material teknologikotzat hartzen da, halaber, erakunde nagusiek EH Bilduko kargudun publikoaren eskura jartzen dutena. Hori arautuko da, halaber, EH Bilduren segurtasun eta informatikari bu-

ruzko Protokoloaren bitartez (honako hauek dira erakunde nagusiak: Europako Parlamentua, estatu espainoleko Madrilgo Kongresua eta Senatua, Hego Euskal Herriko Iruñeko edo Gasteizko parlamentuak eta Foru Aldundiak).

- q. Kargudun publikoak edo barneko kargudunak bere gain hartzen du Euskal Herria Bildu Federazioarekin Konfidentzialtasun Akordio bat sinatzea, konfidentzialtasun-konpromiso bat lortzea beharrezkoa denean, bere eginkizun publiko zein barnekoak betetzean tratatutako informazioa dela-eta. Betiere arlo juridikoaren eta segurtasun informatikoaren arloaren aholkularitzarekin, eta EH Bilduren zuzendaritza-organo gorenak hala erabakitzen badu.
- r. Kargudun publikoak edo barneko kargudunak bere gain hartzen du informazio konfidentzial askorekin jardungo duela, eta informazio hori Datuak Babesteko Legeak eta hura garatzeko araudiak babestuta egon daitekeela. Badaki, doloaz edo zabarkeria soilez, informazioa ezagutzera ematen, zabaltzen edo erabiltzen badu aldez aurretik aipatutako konfidentzialtasun-akordioaren xedeaz bestelako modu batean, horrek kalte-ordain bat ekar dezakeela sortutako kalte-galerengatik, bidezko bada egoki izan litezkeen ekintza zibil edo penalak baztertu gabe.
- s. Kargudun publikoak edo barneko kargudunak bere gain hartzen du EH Bilduren toki-batzarretan parte hartzea, baita bere erantzukizun politikoak tarteko, parte hartu beharra daukan gainerako organoetan ere.
- t. Kargudun publikoak edo barneko kargudunak bere gain hartzen du euskara lehentasunez erabiltzea komunikazio-hizkuntza gisa. Euskara ez den beste hizkuntza batzuk erabiltzeko, Euskal Herria Bilduk ezarritako hizkuntza-irizpideei jarraituko die, lurralde bakoitzaren errealitate soziolinguistikoa edo hitz egiten duen egoerako zirkunstantzia kontuan hartuz. Bere komunikazio-hizkuntza euskara ez bada, bere gain hartzen du EH Bilduk kargudun publiko edo barneko kargudun gisa jarduteko ezagutza-maila egokiak lortzeko helburuarekin antola ditzakeen prestakuntza-ikastaroetan parte hartzea.
- u. EH Bilduko kargudun publikoak edo barneko kargudunak, bere erantzukizunaz gain, sufragio pasiborako eta aktiborako eskubidea du, Federazioaren barne-erantzukizunetarako hautatzeko edo hautatua izateko eskubidea.
- v. Bilkidea-Afiliatua den kargudun publikoak edo barneko kargudunak, edozein Bilkideren-Afiliaturen eskubide eta betebeharrak berberak dauzka, Estatutuen 8. eta 9. artikuluetan ezarritakoaren arabera.
- w. Kargudun publikoak edo barneko kargudunak erakundearen barne-dinamikan parte hartzeko eskubidea dauka, eta konpromiso hori hartzen du. Hortaz, eztabaidetan dagokion eremuan parte har dezake, bere iritzia eman dezake, eta erabakitzeko eskubidea baliatu.
- x. Kargudun publikoak edo barneko kargudunak bere karguan aritzeko behar duen prestakuntza jasotzeko eskubidea dauka.
- y. Kargudun publikoak edo barneko kargudunak EH Bilduri baimena ematen dio Kode Etikoa hau zabaltzeko edo argitara dezan, guztiz bere borondatez sinatu duena bere datu pertsonalak jasota, betiere EH Bilduko zuzendaritza-organo gorenak Federazioaren interesen mesederako egokia dela uste badu.
- z. Kargudun publikoak edo barneko kargudunak EH Bilduri baimena ematen dio bere irudia, curriculum eta/edo profila zabaltzeko edo argitara dezan, webgunearen, intranetaren, sare sozialen, aldizkariaren, argitalpenen, erakusketen edo beste edozein baliabideren bitartez.

Kode Etikoa arauak

Jarraian, Euskal Herria Bilduko Kode Etikoa arautzen duten arauak tipifikatzen dira (hemendik aurrera, Kodea edo Kode Etikoa).

1. artikulua. Eremu subjektiboa.

Kode honen aplikazio-eremu subjektiboa EH Bilduko komunitatea izango da, eta, zehazki, edozein kargudun publiko, barneko kargudun eta Bilkide-Afiliatu lotuko du.

Kargudun publikotzat hartuko dira, batetik, kargu hautatu edo hautagarriak betetzen dituztenak, eta, bestetik, izendapen askeko edo konfiantzazko postuak betetzen dituztenak, ordainarekin edo ordainik gabeak izan daitezkeenak.

Barneko karguduntzat hartuko dira kargu organikoak betetzen dituztenak, ordainarekin edo ordainik gabeak izan daitezkeenak —ordezkaritzako edo proiektzio politiko eta/edo publikoko karguak izan edo ez izan—, eta, horiez gain, EH Bilduri lotutako kontratudun postuak betetzen dituztenak.

2. artikulua. Eremu objektiboa.

EH Bilduko Federazioaren eta haren komunitatearen jarduna arautu behar duten printzipio eta balio gidarien, konpromiso publikoen eta jokabide-arauen katalogo bat biltzen du Kode honek. Kode hau martxoaren 30eko 1/2015 Lege Organikoan ezarritako lege-betekizunetara egokitu da.

Kode Etiko honen asmoa ez da sor daitezkeen egoera guztiak barne hartzea, alderdien Federazioa eta haren Komunitate osoa gidatu behar duten gutxieneko jokabide-arau batzuk ezartzea baizik, betiere haren printzipio eta balioak eta hartutako konpromisoak errespetatuz.

3. artikulua. Conditio sine qua non.

Kargu publiko edo barneko kargu batez jabetzeko conditio sine qua non da Kode Etiko honetan araututako filosofia eta printzipioak espresuki onartzea, baita printzipio horiek garatzen dituzten eranskin normatiboak eta jardun-protokoloak betetzea ere. Hori guztia, Kode Etiko honen errubrika bidezko berrespenean gauzatuko da.

4 artikulua. Indarraldia eta aldaketa.

Kode Etiko honek indarraldi mugagabea izango du, eta EH Bilduko Batzar Nagusiak Hegoaldeko Mahai Politikoaren proposamenari jarraikiz onartutako aldaketa guztiak ontzat hartuko ditu, jarraipen- eta ebaluazio-prozesuen arabera.

Salbuespen gisa, erantzukizun penal korporatiboko aholkularitzak edo EH Bilduren Kontrol eta Berme Batzordeak funtsezko alaketaren bat egin behar dela erabakitzen badute, alaketa egin eta EH Bilduko Komunitate osoari jakinaraziko zaio.

5. artikulua. Jarraipena, ebaluazioa eta garapena.

Kode Etiko honen jarraipena eta ebaluazioa etengabea izango da, eta Arlo juridikoaren arduradunak egingo du, gutxienez urtean behin; halaber, EH Bilduko barne-antolamenduko Zuzendaritzari igorriko dio txostena. Kode honen edukia barneko oinarri normatibo, erregelamendu edo protokolo bidez garatuko da, barneko-antolamenduko Zuzendaritzak egokitzen jotzen duenean. Horrek guztiak arau berrien tipifikazioa ekar lezake berekin, Eranskin Normatibo eta/edo Jardun Protokoloetan bil litezkeenak. Ildo horretan, horietan ezarriko dira prozedurako, inplementazioko, kontroleko, zigorreko eta estatutuen arabera sor litezkeen bestelako premia normatiboetarako mekanismo zehatzak, betiere EH Bilduko zuzendaritza politikoaren organo gorenak hori erabakitzen badu.

6. artikulua. Betetzea

EH Bilduk zaindu eta bultzatu egingo du Kode Etiko hau betetzea, baita, egokitzen jotzen badu, hura argitaratuz eta zabalduz ere, herritarren aurrean bere erabateko gardentasuneko politika frogatzeko xede bakarrarekin.

Nabarmentzekoa da, Federazioaren Estatutuen 9 d) atalak ezartzen duela Bilkideak-Afiliatuak honako betebeharrak hau daukala: "EH Bilduko Kode Etikoan ezarritakoa errespetatzea."

Azken batean, Kode honen eremu subjektiboak ezartzen duenez, EH Bilduko komunitate osoak errespetatu behar du.

7. artikulua. Ez betetzea.

Kode Etikoaren ustezko urraketa baten zantzurik dagoenean, Federazioaren barne-antolamenduko Zuzendaritzak kudeatzaile bat izendatuko du barneko ikerketa bat egin dezan eta Kontrol eta Berme Batzordeari txosten bat igor diezaion.

Kontrol eta Berme Batzordeak Federazioaren Estatutuen 11. artikuluan ezarritakoari jarraikiz jardungo du (ikus diziplinazko araubidea). Ildo horretan, 11. artikulua 3. atalean ezartzen da, eta zehazkiago, «C» azpiatalean, EH Bilduren Kode Etikoa urratzea oso hutsegite larritzat jotzen dela.

Salbuespenez, independentetzat, hau da, estatutu-arauei lotu gabekotzat, jotzen den kargudun publiko batek Kode Etikoaren ustez bete ez izanaren zantzurik dagoenean, Federazioaren barne-antolamenduko Zuzendaritzak kudeatzaile bat izendatuko du, ustezko urratzailearekin batzartzeko eta gertatutakoa argitzeko. Kudeatzaileak, behar bezalako arduraz eta datu guztien jabe izanik, gertatutakoa azalduko du ahalik eta zehatzen, eta barne-antolamenduko Zuzendaritzari txosten idatzi ez-lotesle bat helaraziko dio. Bestetik, barne-antolamenduko Zuzendaritzak Federazioaren zuzendaritza politikoaren organo gorenari igorriko dio txosten hori, erabakirik egokiena har dezan.

8. artikulua. Ez betetzearen ondorioak.

Diziplinazko araubideak zehazten ditu ez-betetze baten aurrean jarraitu beharreko prozedura eta haren ondorioak,

hau da, izan daitezkeen zigorrak (ikusi EH Bilduren Estatutuen 11. artikuluan ezarritakoa).

Salbuespenez, EH Bilduko zuzendaritza politikoaren organo gorenak uste duenean, gehiengo soilaz, kargudun publiko independente batek Kode Etikoa urratu duela, eta, hala ere, azken horrek kargua bere borondatez utzi ez badu Kode honen 3. artikuluan hartutako konpromisoak betez, EH Bilduk eskatuko dio kargudun hautetsiaren edo kargudun publikoaren akta Federazioaren eskura utz dezan. Akta bere borondatez entregatzen ez badu, udal-, batzar-kide- edo legebiltzar-taldetik kanporatuko dute, edo bidezko bada, daukan izendapen askeko kargutik kenduko dute.

Horrez gain, barne-antolamenduko Zuzendaritzak uste duenean estatutu-arauei lotu gabeko EH Bilduko Komunitateko kide batek (aurreko paragrafoko salbuespena alde batera utzita) EH Bilduko Kode Etikoa urratu duela, gonbidatuko zaio Federazioaren espazio publiko eta pribatueta duen parte-hartzea bertan behera utz dezan, edo, bere borondatez egiten ez badu, horietatik kanporatzeko aukera izango du Zuzendaritzak.

9. artikulua. Kanal Etikoa.

Hartutako konpromisoa sendotzeko helburuarekin, Kode Etikoarekin lotutako iradokizun edo kontsulta guztiak Kanal Etikoaren bitartez bideratu ahalko dira: postontzietikoa@ehbildu.eus.

10. artikulua. Salaketen kanala.

Hartutako konpromisoa sendotzeko helburuarekin, Kode Etikoa ez betetzeari buruzko salaketa guztiak [Salaketa Kanalaren](#) bitartez izapidetuko dira. Kanal horretan urraketa baten berri eman ahalko da, 2019ko urriaren 23ko 2019/1937 Europako Zuzentarauari jarraikiz.

Salaketa faltsuak edo EH Bilduko Federazioaren edo haren profesionaletako edozeinen izen ona gutxiesteko asmo bakarra duten salaketak aurkezten dituzten kargudun publikoei edo barneko kargudunei, unean-unean indarrean dagoen lan-legeriaren eta aplikatzekoa den hitzarmen kolektiboaren arabera dagozkion diziplinazko zigorrak eta prozedurak ezarriko zaizkie, eta Bilkideak-Afiliatuak badira, Federazioaren Estatutuetan ezarritakoa ezarriko zaie.

11. artikulua. Gatazka Etikoak.

Sor daitezkeen gatazka etikoak tratatu beharko dira Estatutuek, Kode Etiko honek eta/edo horiek garatzen dituzten Federazioaren Erregelamenduek (Eranskin Normatiboak eta/edo Protokoloak) ezarritakoari jarraikiz. Nolanahi ere, Kontrol eta Berme Batzordea izango da (ikus EH Bilduren Estatutuen 24. artikulua) Kode Etiko honen interpretazio eta aplikazioarekin lotutako edozein gatazka ebazteko ahalmena izango duena, Federazioaren Estatutu edo Erregelamenduen norainokoaren gaineko txostenen bitartez (Estatutuen 24.2 artikulua).

12. artikulua. Publikotasuna.

Kode Etikoa publikoa izango da, Interneten erraz eskuratu ahalko da, eta federazioko kide eta langile guztien eskura jarriko da EH Bilduren intraneten (<https://elkarrekin.ehbildu.eus>), baita inprimatutako aleetan ere, kontsultatu nahi duen edonoren eskura.

Kode honen eraginpean dauden pertsona guztiei posta elektroniko bidez helarazi behar zaie Kodea, eta jaso izana berresten dutela zaindu beharko da.

EH Bilduko proiektu politikoa osatzen duen Komunitate osoaren prestakuntza etikoaren funtsezko tresna izango

da Kodea, eta komunikazio-, prestakuntza- eta sentsibilizazio-ekintza egokiak gauzatuko dira EH Bildun behar bezala ulertzeko eta martxan jartzeko.

Xedapen iragankorra

EH Bildu etengabe berritzen ari da bere erregelamenduzko corpusa indarreko araudira egokituz, Betetze Normatibo Penal-Ekonomiko-Finantzarioaren zein bere Eranskin Normatibo eta/edo Jardun Protokoloen ezarpen eta inplementazioarekin. Horrek guztiak ekar dezake, Kode honetan ezarritako arau edo prozeduretako bat, baita haren artikuluetako bat ere, Kode Etiko honen errubrikaren egunean guztiz operatibo ez egotea; kasu horietan, 4. eta 5. artikuluetan ezarritakoa hartu beharko da aintzat, edo hala badagokio, Kontrol eta Berme Batzordeak ezartzen duena.

Xedapen gehigarriak

Hegoaldeko Mahai Politikoak Kode Etiko hau aurkeztuko du, Batzar Nagusiak onar dezan.

Azken Xedapenak

Azken xedapenen artean lehena

Kode Etiko honek espresuki lotuko du, errubrikaren unean dagokion kargu publikoa edo barneko kargua duen pertsona.

Kode Etiko honek Bilkidea-Afiliatua lotuko du espresuki, federazioan alta ematen zaion une berean.

Azken xedapenetatik bigarrena

Kode Etikoa ez ezagutzeak ez du EH Bilduko Komunitateko inor hura betetzetik salbuetsiko.

Azken xedapenetatik hirugarrena

Kode Etiko hau indarrean egongo da Euskal Herria Bilduko Batzar Nagusiak onartzen duenez geroztik.

Kargudun publikoen eta barneko kargudunen errubrika

- I. Kode Etiko hau onartzen eta ontzat ematen dut, oso-osorik, eta harekin bat etorritzat jardungo dut beti.
- II. Barneko oinarri normatiboa onartzen eta ontzat ematen dut, hau da, EH Bilduko Federazioaren Estatutuak eta Erregelamenduak (Eranskin Normatiboak eta/edo Jardun Protokoloak), baita dokumentu honen errubrikan finkatutako dataz geroztik indarrean hasi litezkeen garapen-arau guztiak ere, betiere, EH Bilduko zuzendaritza politikoaren organo gorenak horiek berretsi ondoren.
- III. Adierazten dut, kargudun publikoa (hautetsia, hautagarria edo izendapen askekoa) edo proiektzio politiko eta publikoa duen barne-karguduna izanik, kargu hori utziko dudala, baldin eta Kode Etiko honen aurka doan jokabide bidegabe edo gaitzesgarri bat izaten badut.
- IV. Adierazten dut, Kode Etiko honekin batera, EH Bilduko Plan Feministak egindako "Indarkeria matxistaren aurkako protokoloa" eman didatela, eta harekin bat natorrela, bete-betean. ([1. Eranskina: Indarkeria matxistaren aurkako protokoloa](#)).
- V. Adierazten dut, ordaindutako kargudun publiko edo barneko kargudun bat izanik, EH Bilduko Diruzaintza Arloak egindako "Erregelamendu Ekonomikoa" eman didatela ([2. Eranskina: Erregelamendu ekonomikoa](#)).
- VI. Adierazten dut EH Bildu alderdien Federazioari (IFK: G-71206700) nire baimen espresua eta argia ematen diodala nire irudia, nire curriculum edo nire profil propioa zabal dezan, webgunearen, intranetaren, sare sozialen, aldizkariaren, agerkariaren, erakusketen edo beste edozein baliabideren bitartez.
- VII. Izen-abizenak:
- VIII. NAN:
- IX. Lekua eta eguna:
- X. Sinadura:

Lege-oharra: Datu Pertsonalak Babesteko Legeak ezarritakoaren arabera, honen bitartez jakinarazten dizugu zure datu pertsonalak fitxategi batean jasota egoteko eta fitxategi horren ardura izateko onarpena EH Bilduri ematen diozula, zeinak egoitza ondorengo helbidean duen: Pillotegi 2, P.K. 20018 Donostia. Aipatutako kontaktu-fitxategiaren helburua zurekiko harremana kudeatzea baino ez da, emandako datuen segurtasuna eta konfidentzialtasuna bermatuz. Datu hauek ez dira beste batzuen esku utziko eta hauek gordeko dira beharrezkoa eta zilegitasun guztiarekin bildu ziren helburuentzako. Edozein kasutan onarpena ukatzeko, datuetara sartzeko eskubidea, horiek zuzentzeko edo kentzeko, erabileraren muga ezartzeko edo aurka egiteko, edota datuak leku batetik bestera mugitzeko eskubidea erabili nahi izanez gero, jo ezazu helbide honetara: EH BILDU, Pillotegi 2, P.K. 20018 Donostia (Gipuzkoa) edo bidal ezazu mezu elektronikoa ehbildu@ehbildu.eus helbidera, zure izena, abizenak eta NAN zenbakia azalduz. Modu berean Datuak Babesteko Espainiako Agentziari erreklamazioak edo galderak egin ahaliko zaizkio Datuen Babeserako Ordezkarari e-posta bat bidalita DBAO@ehbildu.eus helbidera.

ehbildu

Kode Etikoaren eranskina Anexo al Código Ético

Sinatutako Kode Etikoaren printzipio eta balioen garapen gisa, non, alde batetik, elkarrizketa, negoziazioa eta akordioa edozein lan-metodoren oinarri diren, eta, bestetik, elkarrekiko errespetu handiena EH Bilduren komunitatea osatzen dutenen eta gainerako herritarren arteko oinarria den, adierazten dut EH Bilduren oinarri ideologikoak eta helburu politikoak nire egiten ditudala, edozein giza eskubideren aurkako eraso edo urraketa dakarren edozein ekintza edo jarduera arbuiatuz, baita helburu politikoak lortzeko indarkeria erabiltzea ere.

Como desarrollo de los principios y valores del Código Ético firmado, donde por un lado el diálogo, la negociación y el acuerdo son la base de cualquier método de trabajo y, por otro, el máximo respeto mutuo es la base entre quienes conforman la comunidad de EH Bildu así como con el resto de la ciudadanía, declaro que, hago mías las bases ideológicas y objetivos políticos de EH Bildu, rechazando con ello cualquier acto o actividad que suponga agresión o violación a cualquier derecho humano y al uso de la violencia para la consecución de objetivos políticos.

Izena/Nombre:

Abizenak/Apellidos:

Data/A fecha : 20___/_____/____(e)(a) n. -- ___/_____/20__

Sinadura/Firma: